

# Oinarriak

## 1. Parte-hartzaileak

Literatur lehiaketa hau getariarrei zuzenduta dago. Partaide bakoitzak lan bat edo gehiago aurkez dezake, betiere adinaren arabera dagokion mailan.

Lanak banaka egingo dira; dena den, LH1eko haurrek bi lagun artean egin ditzakete.

## 2. Modalitateak eta mailak

Bi modalitate izango dira maila bakoitzean: IPUINA eta BERTSOA/OLERKIA.

- |                            |                                 |
|----------------------------|---------------------------------|
| 1. LHko 1. mailako haurrak | 6. LHko 6. mailako haurrak      |
| 2. LHko 2. mailako haurrak | 7. 12-14 urte arteko gaztetxoak |
| 3. LHko 3. mailako haurrak | 8. 14-16 urte arteko gazteak    |
| 4. LHko 4. mailako haurrak | 9. 16 urtetik aurrerakoak       |
| 5. LHko 5. mailako haurrak |                                 |

## 3. Gaia eta luzera

- Gaia librea izango da.
- Jatorriz euskaraz idatziak izatea.
- Lanak originalak, argitaragabeak eta beste inolako lehiaketetan saritu gabeak izatea.
- Neurriari dagokionez, hona hemen mailaz maila eta modalitatez modalitate gutxieneko neurriak (A4 neurriaren arabera):

	<b>Ipuina</b> (Orrialdetan)	<b>Olerki/Bertsoa</b> (Lerrotan edo bertsoan)
1. LHko 1. mailako haurrak	1 or.	8 lerro edo bertso 1
2. LHko 2. mailako haurrak	1 or.	8 lerro edo bertso 1
3. LHko 3. mailako haurrak	1 or.	8 lerro edo bertso 1
4. LHko 4. mailako haurrak	1 or.	8 lerro edo bertso 1
5. LHko 5. mailako haurrak	2 or.	10 lerro edo bertso 1
6. LHko 6. mailako haurrak	2 or.	10 lerro edo bertso 1
7. 12-14 arteko gaztetxoak	2-5 or.	12 lerro edo 2 bertso
8. 14-16 arteko gazteak	3-6 or.	20 lerro edo 3 bertso
9. 16 urtetik aurrerakoak	4-10 or.	35 lerro edo 5 bertso

## 4. Lanak nola aurkeztu

- Lanak ordenagailuz idatziak izatea (LH 1eko eta LH 2ko haurrek eskuz idatzita aurkez ditzakete), letra mota: "Times New Roman" 12, lerroartean tarte bikoitza utzita, eta DIN A-4 neurriko orrietan.
- Idazlanarekin batera, gutun-azal itxi baten barruan adieraziko dira: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia. Kartazalaren kanpoaldean, ipuin edo olerki/bertsoaren izenburua idatziko da.

## 5. Lanak non aurkeztu eta aurkezteko epea

Idazlanak Getariako Udaleko bulegoetan edo Udal Liburutegian aurkeztu behar dira.

**IDAZLANAK AURKEZTEKO EPEA 2018KO APIRILAREN 10A IZANGO DA, 13:00ETAN.**

## 6. Epaimahaia

Kide hauek osatuko dute: Iturzaeta Herri Eskolako irakasle bat, Artzape herri-aldizkariko ordezkari bat, herriko idazle bat eta Getariako Udaleko Euskara Batzordeko burua. Idazkari-lanak udal-teknikariak egingo ditu.

## 7. Erabakia

Epaimahaiak erabakia jakitera eman ondoren, **SARIAK APIRILAREN 20AN BANATUKO DIRA, 18:30EAN.**

Epaimahaiak sariak eman gabe utz ditzake, aurkeztutako lanek behar besteko mailarik ez dutela irizten badio.

## 8. Sariak

Maila eta modalitate bakoitzeko sari bakarra emango da. Egile batek ezingo ditu bi sari jaso. Hona hemen sariak:

	<b>Sariak</b>	<b>Ipuina</b>	<b>Olerki/Bertsoa</b>
1.	LHko 1.-6. mailako haurrak	saria	saria
2.	12-14 urte arteko gaztetxoak	saria	saria
3.	14-16 urte arteko gazteak	saria	saria
4.	16 urtetik aurrerakoak	150 euro	150 euro

### 9. Lanen jabetza eta argitalpena

Saritutako lanak Getariako Udalaren esku geldituko dira, eta Udalarena izango da lan horiek erakutsi eta argitaratzeko eskubidea. Egileek ez dute jabetza eskubiderik jasoko.

### 10. Idazlanak itzultzea

Saririk jasotzen ez duten idazlanak Getariako udaletxean eskuratu ahal izango dira, sari banaketa egin eta 30 eguneko epean. Epe horretan jaso gabeko idazlanak Udalaren esku geldituko dira.

**Literatur lehiaketa honetan parte hartzeak lehiaketa arautzen duten oinarriak onartzea dakar.**



[www.getaria.eus](http://www.getaria.eus)



Getariako Udala

OLERKIA  
IPUINA  
BERTSOA

17.

GETARIAKO

LITERATURA  
LEHIAKETA

2018

LHI - LH6  
DBHko lehen zikloa (12-14 urte)  
DBHko bigarren zikloa (14-16 urte)  
16 urtetik gora